

«ZEHAR-ONURAK»

Antza, «zehar-kalte» itzultzen du EGUNKARIAk azkenaldian hainbeste darabilten ingelesezko «*side effect*» esapidea, (gaztelaniazko «*efecto colateral*», frantsesezko «*effet collatéral*»). Eta kakotx eta guzti irakurtzen dugu maiz, ez, ni ari naizen bezala, terminoa erabili ordez aipatu egiten delako, ez; esapidearen erabilerari eufemismo usaina hartu ohi diotelako baizik. Ekintza baten emaitzen eta ondorioen erantzukizun osoa saihesteko modu errazegia ematen duelako askotan besterik gabe «zehar-kalte» deitzea. Ekintzaren filosofiako gai interesgarria da ekintza baten emaitza eta ondorioen arteko bereizketa, ondorio zuzen eta zeharkako ondorioen artekoa, asmoaren barruko eta kanpoko alderdien artekoa, egileak dakizkien eta ez dakizkien arteko bereizketa; etikako gai zentrala da, bereizketa guzti hauek kontuan hartuta, egilearen erantzukizun moralarena.

Nik gaur, zehar-kalteez baino, *zehar-onurez* hitzegin nahi dut. Ekintza baten zeharkako ondorioen artean bai baitira norbaitentzat behintzat kalteak ez direnak, baita ekintza bortitz eta gaiztoenean ere.

Hartu, esate baterako, New Yorkeko dorre bikien kontra egindako ekintzaren kasua. Bronxeko apezpiku Garmendia lazkaotarrak berehala ikusi zion ekintza horri zehar-onura. Irailaren 11tik aurrera gainezka omen dira New Yorkeko eliza katolikoak; fede katolikoaren akzioek gora egin dute sinesmenen burtsan. Edo hartu ETAk ertzainen kontra hasi duen eraso kanpaina. Ertzantzak *Egunsentia* lan sistema alde batera utzi du. Alkoholemia kontrolen kopurua jaitsi egingo da. Astigarraga aldeko sagardotegien akzioek gora egin dute zurrutaren burtsan.

Ez omen da onurarik ez dakarren kalterik. *Ad maiorem Dei gloriam*, esaten dute Loiolakoaren jarraitzaile zintzoek edozein gertakariren aurrean. Edozer gertatzen dela ere, *Leibniz dixit*, mundu posible onenean bizi baikara! Balorea behar da gero!